

Halaz ere, aldi cartesiarrean gertatzen den bezala, egiazkoa eta gezurrezkoa bereizten dituen sinesteko moduko ezagueraren bila aritzeak, aniztasun eszeptiko edo erlatibistaren erdian, jarrrera kritikora eramango gintuzke. Descartes izan da, hain zuzen, arrazoiari dagokionez, jarrrera kritikori hori eraiki duena. Bestela esateko, arrazoi arratsua aztertuko du pentsamendua, bere burua zainduko du ezaguera egiazkoak eta gezurrezkoak bereiz ditzan edo, nahiago badugu, giza-ezaguera balio duen ala ez, hausnarketa egingo du. Honek guztiak ezagutzaren teoriaren zabaltzen digu, ezagueraren kritikaren ikuspuntutik bada ere: kontu honek, gehienbat, beragatutako du harez gerotziko pentsamendu filosofikoa. Honela bada, giza ezaguerari buruzko zientzia filosofiko osoak, hein handi batean, alderdi kritikorantz joko du. Murritzketaren ondorioz, adibidez, "ezagueraren kritika", "ezagueraren doktrina" edo "ezagueraren teoria" adierazmoldeen esanahia ezberreitzea da: ezagueraren kritikara mugaturik geratu dira denak ere.

Denbora joan ahala, XIX. eta XX. mendeen tartean, filosofoaren funtsezko oinarri bihurtu nahi denean, kritika-arazoari irtenbidea bilatzeko biziki zaila dela ikusita, bietako bat: arazo honek soluzio-biderik ez duelako susmoa igartzen da, edo hau sasi-arozoa delako sinetsmena adatzen da. Hau da, erredukzionismo kritikoa ondoz, ezaguerari buruzko zientziak bertan beheran utziko dira edo, bestela, arrazoiaren arazoa, zentzu zientifikorik ez duten kontuetako bat dela pentsatzera iritsiko da.

Joera kritikari honen eskutik, halaz ere, garaiko ideal zientifikoak eta, hauekin batera, metodoa bera ere dira Descartesek kezka. Printzipio eta lehen kontzeptuetan oin harturik, sistema osatuko duen zientzia kaositzea da garaiko idealetako bat. Egoera honetan, zientziaren proposamenen, teoremen eta horietara iristeko bide zuzena zein ote den zehaztea da kontua. Erralitateari buruzko gure ezaguera zuzena, begi-bistan dauden ideia eta printzipio batzuetan oin harturik, dedukzioz osa daitekeela dio Descartesek. Era berean, filosofo honen arabera, sentipenezko esperintziaz kanpo, adimenak badauzka ideia eta printzipio hauek, hau da, printzipio eta ideiak sortzetikoak dira eta, ondorioz, errealtateari buruzko gure ezagutza egiazko eta baliozkoek arrazoiaren, pentsamenduan bakarrik dute jatorria.

Zutoin epistemologiko eta metodologiko berrien gaineko pentsamenduaren eraberritzea da, horrenbestez, Modernitatea izango den horren hasieran dagoena. Bestela esateko, arrazoi-sistema eta, errealtatearen ezagueran, arrazoi horren jokamolde zuzen eta egiazkoa agiriari ipini nahi duen arkitektura berria dugu.

Razionalismoa

Sortua da Razionalismoa. XVII. mendearen erditik aurrerako filosofoaren —hau da, filosofia modernoaren eta, bereziki, arrazoiaren Aufklärung delakoaren— erreferente genealogiko bilakatuko da Descartesek sortu duen sistema filosofikoa. René Descartes da, hain zuzen, filosofia ikusteko era berri hau bultzatzen duena eta, ikusmolde berriaren ezaugarria izango den gnosologian muin hartzea, hau da, ezaguera zer den eta zertarako balio duen ikertzea, joera kritikorantz, beti ere. Aro Modernoan arte ezagueraren azterketari buruzko kezka, filosofian, Jainkoari, gizakiari eta unibertsoari buruzko teoriaren ondoren bakarrik jorratutako kontua bazen ere, aurrerantzean hauxe izango da arazo behinena. Baina, bere garaiko ideal zientifikoaren par-

taide den aldetik, arrosoi matematiko zenbagarri eta neurgarria erradikaliza dadin eta metodo epistemologikoa azken muturreraino unibertsalizatzea proposatzen du Descartesek ere. Baina razionalismo hau, fedean oin harturik, modernotasuneko fede berria izatera iritsko da.

Sortzetiko ideien eta esperientziatik ez datozen printzipioen dokrinak, mota guztietako ezaguera inntsa arrazoiari bakarrik daukala adierazteko eta, era berean, gauzak berez ezagutzeko ahalezkotasuna ukatzeko nahia, arrazoia alor empirikotik kutsadurarik har ez dezan, isolaturik mantentzeko errotiko erabakiarekin batera, fenomenalismo eta idealismoci ataeak zabaldu egingo dizkiete. Esperientzia filosofiaren alorretik kanpo uztea eta guazzen ezaguera printzipioen logika sistematikoaren bidez ibilarazi nahi izatea —hau da, *more* geometriko edo matematikoa lehen egia batetik eta arrazoia bakarrik laguntzaile izaki, gainontzeko egia guztiak deduzitzeko ahalegina—, hori dena da razionalismoa modernoaren sustraia. Gorputzetatik etor litekeen edozein indar eta jardueraren ukapen kontsekuentea eginez, naturaren filosofia mekanizistari ematen zaio hasiera. Honek guztiak errotiko dualismoa sortzeko bidea jorratzen du eta honek berebiziko eragina izango du epistemologiaren geroagoko bilakeran, pentsamolde filosofikoaren adarretan ere eraginez: epistemologian (sortzetiko ideiak, ariman bakarrik sorburu dutenak/ideia adbertizioak, esperientzian bakarrik sorburu dutenak), metafisika (Jainkoa /mundua), psikologia (arima/gorputza), entropologian (gizakia/ makina).

Razionalismoaren lehen bilakaerak, logika berehalakoaren ondorioz, Descartesek ehandutako problematikatik berezita sortzen dira. Hementxe sartzan dira dualismo cartesiarra, monismo spinozarra eta pluralismo leibniztarra: razionalismo hauek, bere sistematik kanpokoa den arrazoiaraz goragoko azken funts jainkotiarrean dute euskarria (epistemologikoki, batez ere). Ziurtasunez aritu eta kanpoko munduaren ezagutzarako jauzia eman ahal izateko bermea, panteismo bateratzaile eta kosmosa harmonizatzen duen erloju-konpontzailea.

Horrela sortzen dira errotik epistemologikoak diren modernotasunaren oinarriak. Eta modernotasun honi, hain zuzen, ezagutzak gauzen ordeaz ideiak bakarrik ezagutzen dituen unetik, bi akats leporatuko zaizkio: pentsatzearen baldintzak pentsatzea (hau da, zirkuluan amiltzea) eta, kontzientzia den kartzelatik haratago ezin hegan egitea.

Aurrenrantzean, eraikuntza metafisikotako kezak jasoko ditu gnoseologiak. Halaz ere, autonomiaz jarduteko nahiak gora-bchera, egitura teorikoen funtsa den heinean, arrosoia ezin da bererizi jainkozko bermetik, askozaz geroago arte.